

KONDAIRA ZAHARREN IBILBIDEAK



JOSEAN
GIL-GARCIA
ARGOTE

EUSKAL HERRIA

sua
EDIZIOAK



KONDAIRA ZAHARREN IBILBIDEAK

AURKIBIDEA

HARIRA ETORRI AURRETIK.....	9
ATARIKOA.....	10
IBILBIDEEN EZAUGARRI OROKORRAK.....	14
IBILBIDEAK BANAN-BANAN.....	16
• ARABA.....	22
1. Okinako haitzuloaren oihartzuna.....	24
2. Urrialdo, basiliskoaren bizileku.....	29
3. La Encontrada baserria.....	34
4. Lezeagako sorginak.....	39
5. Saldukeriaren bidexka: Horcatik Rojandara.....	44
• BIZKAIA.....	48
6. Aranekoarri, Arnako bidegurutzean.....	50
7. Limitadua, zubirik zubi.....	55
8. Urduña, urrezko paisaia.....	59
9. Illunzar, Ineritze leizeko babesleku.....	64
10. Urallagako haitzuloaren aienak.....	69
• GIPUZKOA.....	74
11. Mendikute, gotorleku eta barrunbe.....	76
12. Kizkitza, itsasoan pulunpatua.....	81
13. Altzo, neurritz kanpoko handiak.....	86
14. Murugaingo ingurubira.....	91
15. Kurutzebarri, Zariaiako itsasargi.....	95
• NAFARROA.....	100
16. Berrotzako naturaren erlikiak.....	102
17. Gartxoten harpea gogoan.....	107
18. Frailea, Bardea Beltzaren ikonoa.....	112
19. Bargotako aztiaren ondarea.....	117
20. Ollobarrengo harpe arraildua.....	121
21. Leitza, harriaren gorazarretan.....	126
• IPAR EUSKAL HERRIA.....	130
22. Athezagaitzeko leihoa.....	132
23. Abadiako arnagunea.....	137
24. Sainduki zaindutako harpea.....	142
25. Mondarrain, itzal handikoa.....	147
26. Zuberoako kulturguneak.....	152

HARIRA

ETORRI AURRETIK

Liburu honetan ez dira elezaharrak agertzen belazeetan garoa metatzen den moduan. Ez da katalogo bat. Fruituez emokaturiko hamaika orrialde dituen baratze bat baizik. Horiek horrela, ibilbide gehienak erraz osatzen ahal dira ahalegin xumea eginda. Alegia, mendiez gozatzearen kariaz, testua gogoan eta begirada paisaian baino ez da behar. Zorionez, naturak badaki ibiltari oro hartzen, izadiak ez baitu erreiritzirik.

Gogoan dut 2004ko urtarrilean izan genuen harridura bitxia: Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribua ediren zuten eta gertakari mediatiko garrantzitsua eragin zuen horrek. Guztien aho-ezpainetan egon zen Larreako dorretxeko jaunaren dohaina: artzain-nobela bat eta kantu moduko poemak zekartzan euskaraz idatzitako XVI. mendeko testuak.

Gogoan dut Lazarragatarren garai bertsukoak diren Munain herriko haritz zaharren aurkikuntza. Paradoxa bada ere, ehunka urte igaro behar izan dira zuhaitzon garrantziaz behin-betiko jabetzeko. Ahuldadea baino ezin dut sentitu enbor zimurtsu horien aurrean; baita zinezko umiltasuna ere euren lekukotasuna aitortzean. Izan ere, harridura baino ez dit ekarri pentsatzeak haritz horiek altsuma edo muskil berriak izango zirela behiala, Larreako dorreko jauna literatura lantzerantz emana zen ber denboran.

Liburu honetan agertzen diren ibilbideak, beraz, hurbilekoaz jabetzeko amuak dira. Hots, belaunaldiz belaunaldi igorritako kontakizun zirrargarriak begirunez aditzeko estakuruak. Hortaz, indarberritu gaitezen naturan barrena ibilian, paisaia etengabe mintzo baitzaigu, tamaina, forma, kolore eta azaleko zauriak bistan dituela.

ATARIKOA

Elezaharrak herriek eraiki dituzte beren kemen, ahalegin eta nahiarekin. Belaunaldiz belaunaldi igaro diren ahozko kontakizunak dira, lurrari sakon eta barneki sustraituak. Lili-baratzetan legez, arbasoen ele zaharrak mendi magaletan hazten diren landareak dira. Jakina da ur-kopuru zehatza behar izaten duela mota bakoitzak. Hala ere, mantentzen baita landaredia bizirik, uretan ito gabe; ezta urritasunean ihartzen utzita ere. Ur joanak ez baitu errotarik erabiltzen. Ziur asko gure aurrekoak lorezainen antzo ibiliko ziren, ur baree-

tan berbetan, hitz eta pitz. Hitz-baratzearen ardurapean, bestela esanda. Berriketan jardun zuten, akaso, baserrietako sutondoan epelean eta sugarrak eragindako giro ezetsuan. Hala, mundu imajinarioan murgilduta, memoria kolektiboa eraiki zuten estu eta artega aritu gabe, ezinbestekoak diren balioak lehenetsi eta berresten. Finean, kondairak bizi-pultsazioak dira, bizitza propioa dute eta denboran zehar mantentzen dira.

Gaur egun, ordea, inor gutxik jarduten du elestan kandelaren argitan. Ez eta neguko iluna-

barretan kontu-kontari ere. Gaur egungo bizimoduak ez du horretarako aldarerik ematen, beste amarru batzuek maskaratzen baitute natura gertu sentitzeko beharra. Antzezlanetan bezalaxe, eszenatokiaren atzealdean gelditzen da landa-gizarteak eraikitako iruditeria. Inaki Ustarroz ikerlariak azpimarratzen duenez, ahozko komunitatea izan da, hain justu ere, gizateriak bere hastapenetatik ikasitakoa belaunaldiz belaunaldi transmititzeko premiazko bidea. Hortaz, lasterbide horretatik iritsi da guregana sinesmenen eta tradizioen garapena. Azken batean, kultura.

Herri-kondairak, mitoak edota ipuinak izan ohi dira herri baten izaerara hurbiltzeko tresna-

rik onena. Hots, arrazoizko azalpenik ez duten fenomenoak azaltzeko bide eraginkorrak. Izan ere, arbasoak hitzari lotuta, elekan aritu ziren gauza arruntei buruz. Esaterako, Okinako erka-meziak babesten duen haitzulo sakonaz edota Urallaga harpeak aireratzen dituen aien eta lantu zirraragarriez. Akaso, Murgiatik Orozkora bidean bizitza galdu zuen neskatoaz edo Bargo-tako aztiak sorrarazitako miresmenaz.

Aurrena, gizarteak arrazoiak asmatzen ditu gertaeraren existentzia azaltzeko. Hala nola, Saldukeriaren edo Traizioaren Bidexka Errioxako eskualdean, Aramaio eta Otxandio udalerrien arteko zalantza mugetan, edota Urkabustaiz eta Zuiako mugetan den La Encontrada baserri apartean. Hurrena, gizarteak bere irudimena-ekin apaintzen ditu jazoera historikoak, eta aitzin-gibelak sortzeari ekiten dio. Azkenik, beste transmititu egiten dizkie forma literario, poetiko edo zientifikorik bilatu gabe. Kondairak beti izan baitu egitiaz zerbait.

Jose Migel Barandiaranek jaso zituen kondaira batzuk azaltzeko gure Lurra ez dela erabat hieratikoa eta, arian-arian, mugitu egiten dela. Pasarte horien arabera, antza, eskualde batzuk mugimendu geldoaren abaroen doaz. Baina Lurra erraldoien bizitokia ere bada. Izan ere, neurritz kanpoko jenioak dabilta batzuetan haitz puskek hara-hona jaurti eta jaurti, mendi gainak goratzen. Beste hainbatetan, bazterrak goitik behera astintzen, Hendaia harri bikiak, kasu baterako.

Lur azpikoak ere zer esana eman du. Geografian barrena begiak arranpalo ibili besterik ez da hartaz jabetzeko. Zirrararen sorrarazten duten toki batzuk hauexek dira: Okinako leize-zuloa, Mondarraingo igarobide sekretuak, Ineritzeko zulo tentagarria eta Antxo Abarkaren gotorleku azpiko galeria iluna. Lur azpian urrea eta altxorrak ere metatzen dira nonbait. Baina, kasu, sugeak eta herensugeak sarbideko zaintzeaz arduratzen dira eta.

Orhi mendia, Eskaleto menditik.





La Encontradako zubi esekia

Felix Mugurutza ikerlariaren ustez, gaitza izan ohi da irudikatzea zelan igarriko zituzten arbasoek ingurune hurbileko gauza guztiak. Izan ere, baliabide urriak zituzten zorigaitzei, heriotzari, gaixotasunei nahiz beldurrei aurre egiteko.

Sorginak hizpidera ekarrita, Becerro de Bengoak 1880an idatzitako deskribapenetan Audio inguruko Lezeagako leizeen zokondoa aipatzen du, hots, sorginak ohikoak zireneko gordeleku zehatza. Hamarkada batzuk geroago, Jose Migel Barandiaranek Sorginzulo haitzuloan jaso zuen amaiera tamalgarria zekarren istorio bat. Nonbait, neskato batek nahierara egin zuen zoko-moko sorgindu horretan. Azkenik sorgin bihurtu zen neskato hura, eta paraje horretan noizbehinka agertzen da.

Beste kondaira batzuetan sorginak izaki ase-ezinak izaten dira eta, euren gutizia asetze alde-ra, gizakiengana jotzen dute gogait egiteko. Joan Mari Irigoien idazleak honako hau esaten du sorginen aferaz “Urruneko motorrak mila zaldi” poema liburuan (2012):

Sorginen artean ere,
mundu guztian bezala,
badira onak
eta badira gaiztoak,
argiak eta babalastoak,
garbiak eta sarnaztoak,
esker onekoak eta eskergaiztoak.
Gehienek, gainera,
badute batetik eta bestetik zerbait,
mundu guztiak bezala,
nork bere piztia,
nork bere bildotsa...

Bistan da gure lehenagokoek ongi ezagutzen zutela hitzaren berezko balioa. David Bueno neuro-hezkuntzan adituak aintzat hartzen ditu hitzak. Gure pentsamenduaren adreiluak dira, modu konplexuan pentsatzeko behar-beharrez-



Lorez eta kolorez apainduko zaigu bidea.

koak. Halaxe ibili omen dira gure arbasoak ere, hitzari isiluneak sorrarazten, betiere gizarteak kontzeptu sakonetan laprast egin dezan. Ez dira ele onak bakarrik, beraz, hitzok pentsamenduen transmisioan garrantzia handia hartzen baitute eguneroko jardunean. Azken batean, pentsatzea norberarekin hitz egitea da.

Haizeak leun jotzen du aurpegian
xuxurla-xuxurla
ipuinak eta pasadizoak kontatzen.
Zenbat istorio ez ote ditu
batetik bestera garraiatzen!

*Leire Bilbao
(Barruko hotsak, eta beste soinu txiki batzuk. 2021)*

Kondairak eta elezaharrak ez dira, hortaz, apeta lausoen produktu efimero edo funtsik gabeak. José María Satrustegiren hitzetan, kondairok ezagutzaren kategoria handiago bati dagozkio, gizakiak munduaz eta naturaren indarraz duen ikuskera ageri-agerian uzten dutenak. Ez dira zentzugabekeriak, ezta pentsamolde magiko baten irudikapen sotila ere. Adimenaren tratamenduan jauzi izugarriak baizik, pentsamenduaren jauzi kualitatiboa.

IBILBIDEEN EZAUGARRI OROKORRAK

Euskal Herria bildumako liburu honetan zazpi probintzietatik zehar ibiliko da bisitaria natur-guneak ezagutzeko asmoz. Desenkusak baino ez dira, beraz, elezaharrak irakurtzeaz batera mendiko ibilbideez gozatzeko. Hurbiltze xume bat da Lizardi poetaren *asaba zaharren baratzer*a. Baratze emankorra, fruituak ematen dituena. Tradizioak horixe du opari. *Ursalto* txokoa aukeratu du Juan Kruz Igerabidek *Ura Saltoka* liburuan. Idazleak badaki deblauki laminak dabiltzala han, putzuetan eta iturrian, txapla-txapla. Laminak baitira giza-kion emozioen eta sentimenduen irudiak.

Halakoxeak dira liburu honetan biltzen diren ibilbideak: apalak eta emozioez beterikoak. Ibilian-ibilian, paisaia ezagunak eta ez hain ezagunak deskubrituko ditu ibiltariak. Igerabidek berak esango lukeen bezala, tragoxka bat edan, erreka ur-emari etzanei eta txirikorda etengabe orraztuei begiratu, eta, azkenik, arnasa barretu. Ibiltari presatontzat ez da gutxi.

Bidaztiak parada ezin hobea izango du bisitatzeko harkaitz handiak, haitz arrailduak, nekromantzia blaitutako leizeak eta eskortak, harpe zaindu eta sailduak, eta Euskal Herria ziprztintzen duten hainbat tontor eta gailur. Halaber, imajinario kolektiboan bermatu diren elezahar eta kondairak entzuteko parada izango du ibiltariak. Asmo horrekin idatzi baita liburua.

Guztira 26 ibilbide aukeratu dira urteko edozein urtarotan egiteko. Orbelak etzaten diren garaian, esaterako, basoek inguratzen dituzten zokoguneak oso egokiak hostoetako kromatikoa gozatzeko. Laino itxi batek basoa biltzen duenean, ordea, ingurubira osoa egiteko aukerarik ez dagoenean, hobe irudikatzea zer ote litekeen bidexka sakratuetan noraezean ibiltzea; alde guztietatik so dabilen izaki baten atzetik jarraitzea, alegia. Lainoaren begiradapean abian

jartzea, beraz, egokia liteke. Ez da mendreneko dudarik: arrastoaren atzetik lagunduko baitu hosto-firfiraren hotsak.

Patxi Zubizarreta idazle ordiziarrak bere *Mundua baloi batean* narrazio lanean protagonismoa ematen dio Nikolas izeneko mutiko bati. Irmo-tasunez atzeraka ibiliko da hasieran. Abiada hartuta, ordea, baloia leku zehatzetan duelarik,

inoizko jaurtiketarik indartsuena egin nahi izango du. Eta atzeraka dabilela, munduan barrena itzelezko bidaia egingo du bide batez. Idazleak kontakizun xume, hitz joko bizi, igarkizun ezkutu eta kantu goxoak tartekatuko ditu. Zubizarreta nola, akaso halaxe ibiliko da ibiltaria ere 26 ingurubira hauek osatzean: Elezaharrak gogoan, batzuetan; lilurak sorginduta, beste batzuetan.

Kontakizun, kondaira edo jakingarriak kontuan hartuta, lau bloke nagusitan sailkatu daitezke 26 ibilbideak:

- **Lurren eta mendien izenak hizpidera ekartzen duten kondairak:** 3, 5, 7.
- **Herri, ibai, ikono edota pertsonen agerpena edo desagerpena gogora dakartzan kondairak edo pasadizoak:** 2, 6, 8, 12, 14, 15, 16, 23, 24.
- **Sorgin, azti, deabru edota laminen ingurukoak:** 4, 11, 19, 25, 26.
- **Haitz handiak, haitz arrailduak, haitzuloak eta mendietan agertzen diren pertsonak hizpide dutenak:** 1, 9, 10, 13, 17, 18, 20, 21, 22.

Mendikute gailentzen da Tolosa eta kostaldea lotzen zituen gaitzadaren ondoan.



1 Okinako haitzuloaren oihartzuna

Gutxisolo eta Silo haitzaren artean, erkameztiak ederki mozorrotutako zoko-mokoan, Okinako leizea dago. Ibilian-ibilian, haren ertzera iritsiko gara, huraxe ez baita oharkabean joango zaigun ohiko barrunbea. Lurraren errai-erraietaraingo lagunduko digute kontakizun eta elezahar ugarik eta, bide batez, bidaia magikoa egingo dugu Okina eta Saseta herriak lotzen dituen behialako harbi-dean gaindi.

Barrualdearen indarra

Okinako leizeak 10 metroko zabalera eta 35 metro sakonera du. Beste haitzuloe-tan gertatzen den bezala, ugari izan ohi dira Arabako Mendialdeko eskualdeko leizea hiz-pide izan duten kondairak. Esaten da, esa-terako, ekaitzak eta erauntsiak sorrarazten direla haitzuloaren barruan. Baita zezen, ahari edo ardi itxura harturik, Mari jainkosa hara-hona dabilela ere. Bestetik, kontakizun alegiazko askok gogora ekartzen dute leizetik hurbilegi ibiltzeak beherantz amiltzea daka-rrela. Halaxe suertatu omen zitzaion ardi bila zebilen artzain bati. Hondora bidean, baina, Arantzazuko birjina gogora ekarri eta hurren-go goizean Gipuzkoako santutegiko kanpan-dorrean agertu zen artzain hura.

Mutil koxkor bat arkumea harrapatu na-hian zebilenean, dio beste elezahar batek, arkumeak barrualderantz erakartzen zuela oharturik, Arantzazuko birjinarekin akordatu ondoren, bizia salbatzea lortu zuen. Arkumea, aldiz, zuloaren hondo-hondoan gelditu zen betiko. XIV. mendeko kondaira batek gogora-razten du Arratiako Joakin Gauna jauntxoaren alabaren ezkontza: artzain batekin egitekoa omen zen. Ezkontza aitaren gustukoa ez eta, alabarekin ezkondu ahal izateko, Okinako leize barruko sorginek gordeta zuten urrezko aharia ekartzeko agindu zion artzainari. Aita-ren engainu edo iruzurra zelakoan, bere mai-talearekin bat egitea deliberatu zuen alabak, eta bi-biek zulora bidea hartu zuten.

Okina herria (Araba) izango da ibilbidearen abiapuntua. Mendialdeko eskualdekoari dago-kion arren, Gasteizko hiriburutik hurbil dago. Gerturatzeke modu bakarra Okinako portu edo mendatea zeharkatzen duen errepide bihurgu-etsua da. Herriko enparantzan utziko dugu au-toa, iturri-edanlekuaren parean. Piruleta kalean aurrera egingo ditugu hasierako urratsak. Kale

banantzean, eskuinera hartu eta Okinako arroi-lan barrena doan bideari oratuko gatzazkio. Horiek horrela, GR 38 zidorra lagun, ehun me-tro inguru egingo ditugu noranzkoa aldatu gabe. Gero, ezkerretik irteten den basabidea hauta-tuko dugu Okinako haitzulora bideari ekiteko.

Bide harritsuan gora, hortaz, Lizerana ibarra estakurutzat hartuko dugu Okinako zulora hurre-

ratzeko. Bedatseko garaian batik bat hamaika txori-espezieri babesa ematen dion landaretza oparoak lagunduko digu igoeran. Hala, elorri zuriak, zuhan-dorrrak, astigar xumeak eta arrosak, beste askoren artean, izango dira bidean zehar protagonismoa hartuko duten landareak. Goratasuna hartu aha-la, bestalde, Okinako hiribildua eta Ihuda ibaiak

hondeatutako mehaka eder-eder agertuko zaiz-kigu. Tanpez, bitan banatuko zaigu basabidea. Pagaditik doanari lehenasuna emango diogu. Lizeranako sakana korritzen duen erreka-stoaren gainetik igaroko gara goraxeago, pagadiarekin bat egindakoan. Bide harritsuan gora segituko dugu orduan, eta ibarrak markatutako noranzkoari men

Etخابuruko pagadia.





Ihuda ibaiak osinak eta ur-jauziak sortzen ditu Okina aldean.

egingo diogu. Ez, ordea, denbora luzez. Izan ere, bidebanatze bat ikustean, basabidea laga eta ezkerretik maldan gora abiatzen den zidorrari jaramon egingo diogu. Zidor patartsuak soilgune batean kokatuko gaitu azkenik. Etxaburuko ordokitik da-

torren bidearekin bat egingo dugu orduan. Ezkerredera hartuko dugu han, eta, xendatik ehun metro inguru egin ondoren, Okinako zulora iritsiko gara.

Sakonunea, ordea, ez da aise sumatzen diren horietako bat. Haitzulora gerturatzen lehen al-

dian, bederen, lana emango digu topatzeak. Izan ere, magaleko erkametzek ongi maskaratzen dute ontzi erraldoi baten moldean egokitutako haitzuloa. Senari jarraituta eta tentu handiz, aldiz, basoaren ertzean ikusiko dugu aho ilun magikoa.

CASTILLETE PARAJEAN GAINDI

Haitzuloko ahoari bisitaldia amaitu ostean, bide zabalera itzuliko gara berriz. Maldan behera egin gabe, ordea, mendi-hegala zeharkatzeari eutsiko diogu. Pagadiaren babesetik irtenda, Etxaburu izeneko ordokia eskuinaldean utziko dugu. Behatoki ederra izaten da hura kare-haitzez beztitutako Ihudako arroila goitik begiztatzeko. Zehar-zehar jarraituko dugu gero, pagoen arteko dantza batean arituko bagina bezala. Zilikiturriko sakanera iritsi arte. Orduan, ibarrean gora emango ditugu minutu batzuk. Hala, sakana alderik alde korrituta, bide nagusiak eskuinera joko du. Hari segika, barrera batera helduko gara. Zeharkatu gabe, eskuinera egin eta Trebiñuko lur ondulatuei begira jarriko gara. Castillete parajearen murgilduko gara bizkor, betiere alambrea ondoan daramagula.

Arluzea eta Markinez kontzejuetako mugak aldamenean eramango ditugu, beraz. Alanbre horrek ezkerredera egiten duenean, zuzen joko dugu, gainez gain eta noranzkoa aldatu gabe. Larre zabalak zeharkatuta, igoera xume bat egingo dugu tontortxo bat zapaltzeko asmoz. Handik gertu, bidebanatze bat ikusiko dugu. Bide nagusiari men eginez, ezkerredera egin eta goratasuna galtzen jarraituko dugu, betiere Toloño mendilerro malkartsuari begirik kendu gabe. Mazuzea sakaneko errekastoa gurutzatu ondoren, jaitsiera luzea egingo dugu mendi mazelatik. Une batez, Urarte herria ikusiko dugu Trebiñuko mugan. Gero, Sasetako tenplu estrategikoa muino batean gailendurik agertuko zaigu, harri ukaldi batera. GR zidorreko seinale zuri-gorriak batuko zaizkigu segidan, Saseta herriaren atarian gaudelarik.

IHUDAKO ARROILA

Ihuda ibaiak hondeatutako sakanean gaindi gauzatuko dugu Okinarako itzulera. Horretarako ezin egokiagorik behialako harbidea jarraitzea baino. Saseta herria ezkerrean utzi eta GR



Okina herria.

38 zidorra bidaide, haitzartean barneratuko gara. Ibilian hasi eta berehala, ezkerreko xendatik jarraituko dugu. Ihuda ibaia ikusi ez arren, zidorrak haren altzoraino gidatuko gaitu urratsez urrats, uraren harrabotsari darion musikaltasunak lagunduta. Galtzadaren arrastoei Haginaren ur-jauziraino lagunduko digute gero. Lehen pagoak eta astigarrek agertzen diren lekutik hurren hautemango dugu ur-saltoa. Ihuda ibaia bil-bil eginda, lehen putzuak sorrazaziko ditu arroilan. Pagoak, hurritzak eta lizarrak ere lotuko dira paraje estonagarrian. Izan ere, landaretzarekin lotuta fenomeno bitxia suertatzen da Okinako arroilan, hots, ordena alderantzizkatua ikusiko du-

gu. Altitudean gora egin ahala arteak, erkameztzak eta pagoak –ordena horretan- ikustea ohikoa bada, ez dira ihudakoan holaxe ageriko. Arroilak gordetzen dituen baldintza klimatiko bereziak direla-eta, hezetasuna hondo-hondoan gelditzen baita, pago kaltzikolak kotarik baxuenetan ikusiko ditugu. Malkarren gaineko ordokietan, aldiz, erkameztiak. Eta arteak, eguzkiaren babeseko magaletan.

Arangatxa sakaneko erreka gurutzatu eta porlan bideari ekinda, haitzartean aurrera egingo dugu. Errota zaharretik eta Sarena iturritik igaro ostean, ibilbideari amaiera emango diogu Okinako plazan.

□ FITXA TEKNIKOA



HERRIALDEA: Araba.
HASIERA ETA AMAIERA: Okina.
IBILBIDE MOTA: Zirkularra.
ZAILTASUNA: Ertaina.
DISTANTZIA: 16 km.
IRAUPENA: 3 h 30 min.
DESNIBELA: 400 m.

2 Urrialdo, basiliskoaren bizileku

Urrialdo izeneko herri hustuaren harriak ikusten dira Martiodatik Otogoienera doan bidetik. Galsoroek inguratutik eta paisaia maskaratua, herriari zegokion tenplu erromanikoaren arkuak atentzioa ematen jarraitzen du oraindik ere. Urrialdoko basiliskoaren begiradapean itzuli ederra burutuko dugu Badaia eta Arrato mendigunetan baina.

Piztiaren begiradapean

Domaikiako Piztiak sona handia hartu zuen Zuiako eskualdean eta haren gaiztakeriak ezagunak egin ziren leku askotan. Akaso oihartzun txikiagoa hartu zuten Lupierro (Iruña Oka) bentaren inguruko pasarteek. Langraizko bizilagunek gogoratzen dutenez, basiliskoak ibili ziren Lupierro inguruan, eta suge baten itxura hartzen zuten. Hegats batek lagunduta, gainera, bere nahia aise lortzen zuten. Hezeguneak gustuko izanik, Zadorra ibaiaren hurbiltasuna izugarri estimatzen zuten piztiok. Lupierro herri bat izan zen behiala, eta, Micaela Portilla ikerlariari jarraikita, hamar bat etxe zituen XI. eta XII. mendeetan. Denboraren poderioz, aitzitik, herriaren populazioa gutxitzen joan zen, erabat desagertzera. Zaila da jakiten bazterrek astindu zituzten piztiak zerikusia izan zuten herriaren hondamendiarekin. Izan ere, basiliskoak begirada zorrotzekoak ziren, eta, erasotua izanez gero, pozoia jaurtitzen zuten ahotik.

Lupierroko benta eta lur propioak baino ez ziren gelditu Posten Erregebidearen ondoan, Zadorra ibaitik gertu. XVIII. mendeko bidaiariek bentaren zerbitzua goraiatu zuten maiz. Mendeak joan, mendeak etorri,

bentazain franko igaro ziren benta horretatik. Esaterako, Simon Argote bizilaguna, 1920an. Hamarkada batzuk geroago, azken bentazai-



Urrialdoko basiliza erromanikoa.

nak ondasun guztiak abandonatu behar izan zituen sugarrek den-dena kiskali zutenean. Akaso, beste behin, basilisko baten agerpenak hondamendia ekarri zion mendeetan zehar ospe ona jaso zuen bentari.

Antzerako zerbait kontatu ohi da Urrialdoko izeneko parajeaz. Urrialdoko eraikinek galsoroz inguratuak dira gaur egun, baina, aspaldi, Lautadako eskualdean existitu zen herrixka ezagun batenak dira. Bere ingurura erromes ugari bildu ohi ziren, Gerardo Lopez de Gereñu ikerlariak aipatzen duenez. Nonbait, irailean izaten zen Urrialdoko tenplu erromaniakoaren horma dekoratuek babesten zuten santua gurtzeko unea.

Poztasunak, ordea, gutxi iraun omen zuen. Betiere elezaharren arabera, basilizaren atzeko iturburuan piztia bat bizi zen, agian erre-tiroan bizitzera kondenatua izandako sorgin baten bengantzak sorrarazia. Dena dela, herri-tarrek sekulako errespetua zioten Urrialdoko piztiari. Basilisko bat irudikatu zuten herritarrek, gupidagabeko eta gorrotozko begirada zuen animalia beldurgarria. Begirada hutsez etsaiak akabatzeko ahalmena zuen. Tamalez, tenpluak eta ondoko etxeak su hartu zuten XX. mendeko hirugarren hamarkadan, eta herria betiko desagertu zen. Elizaren arku erromanikoak, ordea, zutik dirau, bisitarako estakuru ona delarik.

Mendotza herria (Araba) aukeratu dugu Urrialdoraino lagunduko digun ibilbideari hasiera emateko. Herrira heldutakoan, dorretxearen atzeko aparkalekuan utziko dugu autoa. Herrigunean sartu aurretik merezi du, kanpotik ez bada ere, dorretxe gotortuari bisita bat egitea. Eraikinaren handitasunak mirets eginda, erraz da ulertzen Mendotzako kokapenak garai batean erdietsi zuen garrantzia. Ugari dira historian zehar dorretxe horrek kontrolpean izan zituen galtzadak eta gurdibideak. Argantzungo mehaka, Kuartangorako mandabideak eta Arrato mendiguneko portua, besteak beste.

Ibilian hasita, eliza altxatzen den aldera egingo ditugu lehen urratsak. Mendotzako Administrazioarako batzar-tokia ezkerrean laga eta, 19. zenbakidun etxe parera iristean, zuzen jarraituko dugu, elizako talaia igo gabe. Gero, herria inguratzen jarraituko dugu, mende balderantzko urratsak egiteari eutsirik. Herrigunea atzean utzita, bide nagusiak Badaia mendigunera begira jarriko gaitu. Iparretik hegora luzatzen den mendigunea izaki, bestelako ikuspegia izango

dugu Mendotzatik. Izan ere, Oteros mendia gailentzen den talaia tik makina bat haran eta sakan ikusiko ditugu kareharrizko harresia urratzen. Hari elektrikoaren azpitik igarota, bizkor-bizkor ibiliko gara artadiarekin bat egiteko. Bide nagusiak eskuinera egingo du Barrerako aldatsean. Une horretan, GR 25 zidorraren marka zuri-gorriak bidera batuko zaizkigu. Adi ibiliko gara han, jarraitu beharreko bideak iparraldera (eskuinera) egingo du eta, Badaia ko haran eta mehaketan sartu gabe.

Hala, marka zuri-gorriek lagunduta, osteratxo lasaia emango dugu. Laster batean bide banatze batera iritsiko gara. Ezkerreko bidea hartu eta kareharriz jantzitako harbidean gora egingo dugu. Larrinzarganara igotzen hasiko gara astiro-astiro. Baranda batean bezalaxe egingo dugu

gora, nekea eman gabe. Harresi baten ondoan ibiliko gara tontorrera hurreratzen ari garela. Amildegiaren ondotik ibiliko gara, beraz, ezkerrean Badaia ko sakanuneak eta ibar bihurtuak ikusten ditugula. Tontorrean ikuspegi apartak izango ditugu Gasteizko hiriaren gainean, baita Otogoi en herriaren atzetik irekitzen den Oka sakanaren gainean ere.

Larrinzargana atzean laga, eta goratasuna galtzen hasiko gara bidexkari oratuta. Langa bat igaro eta metro gutxira, bat egingo dugu basabide batekin. Orduan, Otogoi en aldera egingo unea baita, mendi-bizkarretik aldendu eta beherantz abiatuko gara. Ubarriaren basilizara iristear gaudela, langa metaliko bat aurrez aurre dugula, barrera zeharkatu gabe ezkerrean egin eta ehunka metro gora egingo ditugu GR



Goro haizulua Otogoi en sakan batean dago.

FITXA TEKNIKOA



25 zidorra lagun. Aldatsa amaituta, eskuinera joko dugu Otobarrenera doan bidexkari helduta. Hala, artadian barrena sigi-saga ibili ostean, barrera bat ikusiko dugu. Hura ere zeharkatu gabe, ezkerretik doan bidexka jarraituko dugu. Hala, artadi trinkoak osaturiko galeriatik irtenda, Loiateko putzura eta Santa Marinara doan basabidera iritsiko gara. Basabidea zeharkatu eta, noranzkoa aldatu gabe, bide zabalari men egingo diogu. Minutu gutxiren buruan, Goro sakanarekin topo egingo dugu. Eskuinetik segituta, Otogoiene izango gara.

PIZTIAREN BIZILEKUA

Elizaren atzealdetik jarraituko dugu gero. Asfaltuak nekazari bide bati emango dio bidea laster eta, nekazari bideak ezkerrean jotzean, zuzen-zuzen doan xendari jarraituko diogu.



Martiodako dorretxea, Arrato eta Badaia mendiguneen artean.

Oka sakaneko errekaostorekin bat egin arte. Orduan, eskuinera egin eta, barrera gurutzatuta, Martioda herri alderantz abiatuko gara. Behin artadia atzean utzita, ezkerrean basabide bat laga eta lau bideko elkargune batera helduko gara Landeta inguruan. Ezkerraldean Urrialdoko eliza ikusiko dugu, galsoroz erabat inguratu-

tua. Joan-etorria egiteko proposamena dakargu orain, paseo lasaia emango baitugu haraino. Behiala, 30 etxe zituen herrixka bat izan zelarik ere, tenplu erromanikoaren arrastoak baino ez dira gaur egun gelditzen.

Bisita egin ostean, bide nagusira itzuli eta Martioda aldera egingo ditugu urratsak. Dorre-

txearen azpian gaudela, errepidea gurutzatu eta aldatsean gora egingo dugu herrigunera igotzeko. Martiodako dorretzara eskuinaldean utzita, ezkerraldean jaitsiko gara txalet batzuen ondotik. 13. zenbakidun txaletaren parean, eskuinera egin eta zuzen-zuzen joko dugu Mendotzara.